

BELOKEKO IXTORIAZ, ZONBAIT LERRO

*Jean-Michel Borthéirie frailearen mintzaldia 2025eko uztailaren 14an Beloken
Peio Jorajuria zuzendun*

Duela 150 urte xuxen, hasi zen leku huntan otoitzean eta lanean fraile multxo bat euskal herritik jinak. Lehenik Aita Bastres eta haren lagun batzu Hazparneko Misionestak ziren. Egun ederra bizi izan zuten buruilararen (edo irailaren) lehenean 1875ean. Bastidan bildu ziren omen 5 mila jende, eta 300 apez. Aratsaldean, fraidetxe berriraino lagundu zituzten Belokeko Ama Birjina besoz bizkarrean eremanen, eta lehen Beneditanoak, Magnificat-a kantatuz, bai eta, egun hartarako, Zaldubi-Ademak egin zuen kantika berria « Ongi-etorri, aita onak, Jainkozko gizonak »

Eta han zer hatxeman zuten ? Borda ttipi bat, etxe txar bat, eta lehen 5 fraileak leku hortan jarri, iratze puxkaren gainean lo egiteko gisan ; bainan, otoitzeko lekua bazen, eta hori zen inportanteena, zeren hortarako baitziren horrat jinak.

Nola behar da konprenitu horien deia ? Hiru misionest Hazparnetik bi urterentzat joan ziren, La Pierre-qui-Vire Abadiarat beneditano-bizitza ikasterat. Hiruak hauek ziren : aita Bastres Senpere-Bastidarreko semea, 40 urte, aita Duperou Ziburutarra, 26 urte, aita Martin Lapeyre Azkaindarra, 29 urte. Hor ziren ere Louis Ardans Aldude Pritxiainekoa geroxago apezuko dena, 28 urte, bai eta lehen anai beneditanoa : Etienne Etcheverry Izturiztarra, 26 urte. Emeki emeki hasi ziren beren bide berrian, eta, egun hartan, jende guziak joanik, ziren gelditu bakartasunean bainan ez bakarrik, Jainkoarekin, zeren fede haundia baitzuten.

Nahi baduzue, Belokeko historiaz mintzatuko naiz lehen parte haundi batean, 3 parte ttipiz osatua dena: lehen 50 urteak, 1875-1925 ; bigarren 50 urteak, 1925-1975 ; hirugarren 50 urteak, 1975-2025. Bigarren parte haundi batean Belokeko laborantxaz nahi nuke mintzatu eta nola fraideek lan hortan inportanzia haundia ukan zuten.

LEHEN 50 URTEAK, 1875-1925

Mgr François Lacroix Baionako apezpiku zela, 40 urtez (1838-1878) egon baitzen, Franchisteguy apezak diozesako Bikario jenerala zela, Beloke sortu zen. Michel Caillavak, Belokeko fraile lehenetarik bat zenak, erran zuen « *l'abbé Franchistéguy ce saint homme avec Garicoits, Cestac et Etchecopar, ont été à cette époque, comme les quatre évangélistes de la sainteté dans le diocèse de Bayonne* ». Jakin behar da, mende hartan, nola diozesak ezagutu zuen gaitzeko hazkundera : 400 parropia, 21 serora kongregazioe, 160 eskola serorek atxikitzen eta abar. Aita Bastrek aspaldian bazuen fraide izaiteko deia bainan, osagarria falta, ez zen kongregazio batean ere sartu ahal izan. Hazparneko misionestek aldiz, ongi etorria egin zioten 1865ean. Euskal Herriko parropietan gairik ibiltzen ziren misionestak eta zonbeit ere Argentinarat joan ziren euskaldunen laguntzeko beren girixtino bidean. Gerla hasi zelarik,

Bastres eta Dupeyrou joan ziren, omonier gisa, armadarekin, eta han edo bidean ezagutu La Pierre-qui-Vireko fraile bat eta Fraidetxe hortan aurkitu zuten bilatzen zutena: komunitatean bizi fraile gisa (*vie cénobitique*), misione lana (*apostolat des missions*), esku lana (*travail des mains*), laborantxako lana eta otoitza. Segur ziren lehen frailegai horiek behar zela erakusterat eman zer izan zitaikkeen holako bizi bat Jainkoari kontsekratua eta orduan, jende gazteak bizimolde hortarat jiten ahalko zirela. Eta La Pierre qui Vire-rat joanik, Bastres apezak hartu zuen izen berri bat : frère Augustin, Dupérouk frère Thomas, Louis Ardanssek frère Odilon, Lapeyre apezak frère Damien, Etienne Etcheverrik frère Laurent.

Beloken, lehen 5 urteen buruan, komunitate ttipi hori nonbrez doblatu zen. Bainan, laster, zapalkuntza bat jin zitzairen. 1880an, politika gatik, azaroaren 11n, komunitatea haizatua izan zen, animaleko jandarma tropa batek etxean itzulia zerraturuz. Jakin behar da, Frantziar barna, 1789ko erreboluzioak kendu zituela komentu guziak, ontasun guziak suntsitu eta fraile eta serora guziak debekatu. Napoleonen 1801eko Konkordataren arabera, fraide guziak debekatuak ziren oraino, salbu diozesetan apez zirenak eta debeku hori, beti oraike (?) gisan zen 1880an. Bainan emeki emeki, haizatuak izanik eta, diskretuki, etxerat itzuli ziren.

8 urteren buruan, 1883an, Beloketik 600 metretan seroren etxea sortu zen, Aita Bastrek eginahalak eginez serora horien laguntzeko. Hola, menditto hortan, fraideak etxe batean eta serorak bestean ziren. Otoitzeko menditto eta lanean artzeko menditto, bi etxe, Jainkoaren etxeak. Bokazione ainitz etxe horier lotu ziren. Etsenplu bat, 1888 urtean bakarrik, 25 fraile profezio eta 13 fraile lagunzaile ofizialki sartu ziren. 1884an, etxea Prieuré bilakatu zen. Bestalde, 1885ean, beraz hamar urte hasiz geroztik, Paueko eskualdean, etxalde bat ukan zuten 40 hektararekin, xahar etxe batez okupatzeko. Bertze obra soziala bat plantatu 1886an : Mugerren, umezurztegi bat (orphelinat) etxalde batekin. Memento beretan, xokolateria bat muntatu zuten fraileek, Bastidako eskualdean, bai eta arina egitze bat (? = irina egiteko eihera bat = ?). Fraile horietarik bat, ziburutar aita Dupérou, La Pierre-qui-Vire-ko nobizioaren buruzagi gisa igorria izan zen. Handik Ingalaterrarat pasatu kanporatzeengatik eta ororen buru Ameriketarat, Oklahomarat, Sacred Heart Monastery, eta harekin, Belokeko 21 fraile joan ziren, bai eta ere serora batzuk ere, nunbaitan hamar bat, joan ziren.

Bokazione ainitz sustatzen zituen Belokek, jakin behar da 19garren mendearen undarrean, ehun bat fraile etxe hortan zirela. 1890eko agorrilaren undarrean, Beloke « Abbaye » gisa zen altxatu. Eta bozkatu zuten fraileek Aita Augustin Bastres beren abadea izan zadin, erran nahi du, bere ardi troparentzat artzain bat izan. Nahi ukan zuten Aita misionesta fraile bilakatu zen Muard-en amets hura Euskal Herrian sortarazi. Erran nahi zuen, nun eta fedea apaltzen ari zen lekuetan, problema haundiek herri guzia betetzen zutenaz geroz, behar zela erlijio organizazio bat muntatu (congrégation religieuse) herriko apezten laguntzeko, preseski Baionako diozesa laguntzeko, penitenzian bizitzen, otoitzean bai eta predikari hobeak izan ditzen. Penitenzia, hitzetan eta obretan ager zezakeen. Erraiten zuen Aita Bastres-k : otoitz biziak, iraunkorrak, kanpoetan indar haundia emaiten ditu elizari eta herriari. Eta frailea da otoitzari emana dena. Diozesaren laguntzeko gisan Beloken lekua bera hautatua izan zen : euskara mintzatzen zen eta erdarra mintzatzen zen lekuen artean. Bainan bizitzeko fraileek lan haundia egin zuten

laborantxan. Bainan ez aski. Jadanik erran bezala, muntatu zen minoteria bat, animaleko lana emaiten baitzuen, 1903 artio, bai eta xokolateria bat. Egun, Bastidako xokolateriak, zerbeit gisaz, fraileen xokolateria segitzen du.

Bainan, 1903 hori ezagutu aitzin, bertze mundu berritik, Argentinatik, gutun bat jin zitzaion Aita Bastres-ri, 1898ko urrian. Igorria zakon handik, Mgr de La Lastra, Paranako apezpiku berriak. Eta zer erraiten zion Argentinako apezpiku berri horrek ? Baizik eta izan zela beilan Lujaneko Ama Birjinari eta han, otoitzean zelarik, galdeginez fraileak, Aita Arbelbide, Hazparneko bastidar misionesta bat, justu justua haren gibelean zen, eta mintzatu zitzaion, erranez ezagutzen zuela Euskal Herrian frailetxe haundi eta kartsu bat, segurez, handik etorri zitaizkeela zonbait fraile. Horren hondotik, Belokek eraiki zuen monasterio bat Victorian, Nino Dios izenekoa, zeren harat joan ziren 20 fraile eta joan zuten berekin ere Belokeko Ama Birjinak zuen Jesus haurra. Han, izan ziren parropien laguntzen, eskola egiten eta laborantxan. Frailetxe hori orai arte bizi da.

Bainan, Frantzian, lege berri batzuk jali ziren, erlijioari buruz. 1901eko uztailaren leheneko legeak erraten zuen (Titre 3 Article 13): « *aucune congrégation religieuse ne peut se former sans une autorisation donnée par une loi qui déterminera les conditions de son fonctionnement ...* » Art. 16 : *Toute congrégation formée sans autorisation sera déclarée illicite ...* » Art. 18 « *... à défaut de justification, ou autorisation refusée, les Congrégations seront réputées dissoutes de plein droit ...* » Ahurtiko Herriko Etxeak eman zuen abisu aldekoa onespena ukaiteko, bai eta serorentzat ere. Bainan 1903ko apirilaren 18an, Bazkoko larunbatean, ukan zuten fraileek manua ihes joaiteko eta beren etxea uzteko salgai, frantses estatuaren fagoretan. Pentsa zer ziren orduan fraileen gogoetak, sustut Aita Bastres-renak ! Fraileek ihes egin zuten ondoko 30ean, eta Beloke enkantean salgai ezarria izan zen, (« mis aux enchères publiques ») 1906ko agorrileko 23an. Fraile gehienak Gipuzkoarat joan ziren, eskolako haurrekin, lehenik Idiazabalera eta gero, 1906an, Lazkaorat, karmelita etxe bat hustua baitzen 1846az geroztik, (Mendizabal legea arabera), eta han kokatu ziren. Belokeko etxean, aldiz, Aita Michel Caillava bastidarra izan zen legez etxearen jabe, tribunalak hori onartu zuen. Beraz, ofreitu zuen diozesari Belokeko etxea eta Larresoroko seminario ttipia, hura ere kanpo ezarria baitzen, Belokerat jin zen, Aita Joseph Marot priorearen, heletarra sortzez, eta Aita Fulgence diruzainaren medioz.

Fraileak Beloketik haizatu orduan, 15 bat iragan ziren Palestinarat, zeren Fraileen Probintzia ari zen etxe berri batzuen sor ararazten Jerusalemen eta Abu-Goshen. Aita Caillava azken leku huntan izana zen misione bat ukanik 1899an. Frantses gobernuak nahi zuen leku hori beneditarreri eman eta Jerusalemeko apezpiku eta apezek nahi zuten beneditanoek Siriako Seminario haundi bat idek zezaten, Siriako eliza laguntzeko. Leo XIIIgarrenak, orduko Aita Sainduak ere azkarki nahi zuen hori. Beraz, 1901ean, Aita Benoit Gariador, aldudarra, Jerusalemerat arribatu zen superior gisa. 1902an, lur bat erosi zuten Jerusalemeren parean, eta Seminarioa ideki 1903an, 3 ikaslerekin eta emeki emeki fraidetxe berri bat altxatu. Aita Michel Caillava, beti ariz heientzat diru biltzen. Bestalde, Aita Caillava, Bastidan bizi zena, Beloketik kanpo izanik, bainan Beloke haren izenean baitzen eta hola salbatua izan zen

fraidetxea. Ezagutu zituen 1905ean Francis Jammes eta Paul Claudel. Francis Jammes-en bihotz berritzean lagundu zuen, komunionea emanez Bastidako etxe batean, hor meza eman baitzuen.

Hortik landa, 14ko Gerla deklaratu zen. Belokeko 40 fraile mobilizatuak izan ziren, gehienak erizain gisa. Bainan gerla hastapenean horietarik 3 hil ziren (Chemin des Dames). Gerla finituta, gerlari ohiak ez ziren Lazkaorat itzuli bainan Beloken gelditu. Bestalde, Palestinan, gerlak makur haundiak egin zituen beneditarren etxeetan, turkoak gerlan sartuak baitziren ere. Miliunka girixtino hil zituzten. Gerla ondoan, Siriako seminarioa arrunt desegina izan zen, seminaristak, aintz hilak edo kanporat joanak, erakasleak falta. Obra horren segida ez zen errexia izan.

BIGARREN 50 URTEAK : 1925 – 1975.

Aita Joseph Marot, Belokeko superiorrak, ideia bat bazuen bakarrik, anaidia Lazkaotik Belokerat itzul zedin. Segurtamena ukanik lekuen jabetza berriz bilduko zuela, galdegin zuen Mgr Gieure Baionako apezpikuari baimena, fraileak itzul zituen etxe hortarat, Larresoroko seminario ttipiak okupatzen baitzituen 1906az geroztik. Behar zuen Beloke salbatu, laburtu Lazkaoko bizia, eta bereziki, egiazko frailetxe batean berriz beren bokazioneaz fraileek bizi behar zuten. Anaidia ere, 20 urtez ihesean egonik, pobrezia haundian zagon, fraileak zahartuak, nonbrea bera ttipitua. Undarrean, Uztaritzen seminario ttipi berri bat diozesak eraikirik, fraileak itzuli ziren Belokerat 1925ean. Bainan, ez zuten gehiago indarrik bertze fundazioneen laguntzeko, Sacred Heart Monastery, Nino Dios Monasterio, eta sustut Jerusalemeko obra. Aita Maur Etcheverry iholdiarra, “visiteur français” zena 1919tik 1928a artino eta “abbé général” Erroman, 1928tik 1937a arte. Jerusalemeko obrarentzat griña haundia bazuen. 1928an, aita Anselme Chibas-Lassallek idatzi zuen : “Hemen gira 19 apez, 45 ixtudiant seminarioan”. Eta 1932an, 5 apez berri, siriarrak, Mendekostez ordenatuak eta bertze biga berantxago.

Aita Joseph Marot abadea zendu zen 1925ko urtarilaren 2an Lazkaon. Ondoko otsailaren 20an fraileek aita Ignace Gracy azkaindarra abadetako hautatu zuten. Eta hunek zuen anaidia Lazkaotik Belokerat ekarrarazi. Paueko San Leon-eko obra berriz hartu zuten, horko laborantza lanak laguntzen baitzuen Belokeko eskola (l’alumnat de Belloc). Misioneak berriz hasi zituzten euskal herrietan. Ez leku guzietan aldiz. 1926an, Erromako Abade jeneralak, Aita Benoit Gariador aldudarrak, baimena eman zuen Beloken nobiziogoa berriz hasteko. Bainan 1933an, Aita Ignace eritu zen eta zendu 1934ko urtarilaren 21ean. Hilabete baten buruan, aita Jean-Gabriel Hondet hendaiarra hautatua izan zen abade izaiteko.

1936an, Espainiako gerla. Irungo apez bat eta gero hamabortz iheslari Belokeko fraidetxerat ziren jin eta 3 urte egon ziren, gerlaren undar artino.

1939-1945eko Gerla

Belokeko 27 fraile mobilizatuak izan ziren. Eta bertze biga, 39ko klasekoak. Azarotik haste, egin zuen fradetxeak etxeko berri-kazeta bat, « l'Agent de liaison », mobilizatuak zirenendako. Beloken berean, Aita Maur Etcheverry Abade Jenerala itzuli zen Belokerat, kozinan laguntzen eta eskola emaile gisa, umiltasunean. 1946ko maiatzean zendu zen. Aita Michel Olhagaray, Zuraidekoa, presoner egina izan zen eta Alemanian presoner atxikia, Berlinen. Zendu zelarik Beloken 1963ko azaroan, burua galdua zue,n Baionako soldaduak tiroka arizantik Belokeren itzulian, uste zuen Berlineko bonbardamenduetarat itzulia zela. Aita Jean-Pierre Inda aldudarra 5 urte egon zen presoner Pomeranian. Bertzalde, Lazkaoko fraidetxeak ukan zuen bere independentzia, bilakatuz 1946ko ekainaren 16an « prieuré » edo priorerri; aita Alberto Begiristain anaian buru ezarria izan zen.

Bestalde, 1943an, erresistentzian sartu ziren Belokeko 4 fraile : abadea, priorea, ostalaria, eta aita Bernardin Darmendrail, erresistentziako Shelburn ingeles sarean sartua aitzineko urtean. Aita Bernardin eskapatu zen 1943ko apirilean, Espainiatik Aljeriarat eta gero Ingalaterrarat De Gaullen armadarat. Abanduaren 14an, 4 egun bakarrik Mgr Van Steenberghe Baionako apezpikua zendua zela, Gestapoa fraidexerat jin fraileen biltzerat. Bietan jadanik Gestapoa jina izan zen aitzinago eta abadearen bulegoa eta ganbara miaturik, paper guziak ereman zituen. Egun hartan beraz, joan zuten berekin Jean-Gabriel Aita abadea, aita Grégoire Joannatey isturiztarra, priorea, eta aita Ildefonse Darricau, ostalaria. Egun heietan norbeitek salaturik, Orion sareko membro guziak, Parisetik Hazparne arte, bat salbu, denak oro arrastatuak izan ziren. Akizeko Bikario jenerala, Bordes kalonjea, hura ere arrastatua izan zen eta hiru frailerekin, Baionako presondegian ezarriak izan ziren bortz astez eta gero, Bordeleko presondegirat eremanak izan. Hor egon ziren, utarrilaren 17 arte, galdaketa gaixtoak soportatuz. Undarrean, Aita Ildefonse laxatu zuten martxoaren 25ean eta itzuli zen fraidetxerat. Bertze biak eremanak izan ziren Compiegnerat eta handik Buchenwalderat. Biziki pidaia latza egin zuten arribatzeko gauaz, 1944ko urtarrilaren 18an, hotz haundi batekin. Buchenwalden berean, pentsatzen duzue zonbat sofrikario sopotartu ahal izan zuten urte bat barne. Eta 1945eko urtarrilaren 7an, Dachaurat igorriak izan ziren, leku hain hits hartarat. Badugu lekukotasun bat, Eloi Leclerc frantxiskanoarena, 20 bat urtekoa, trein berean baitzen : *“Parmi les convois arrivés à Dachau, celui de Buchenwald : un groupe d'environ 5000 hommes avait été mis en route vers la gare de Weimar où l'embarquement s'effectua dans des wagons-bennes et des wagons fermés, à raison de 70 à 100 par wagon. Le voyage s'effectua dans des conditions atroces. Assoiffés, presque sans nourriture, malmenés par les SS, les rescapés environ 1200 arrivèrent à Dachau après une odyssée de 20 jours. Impossible de décrire ces 20 jours où nous étions entassés au point de ne pouvoir nous étendre, affamés, délirants, écrasés de coups, dans le sang et les déchets, mourant les uns après les autres, les uns sur les autres. Oui, ce fut l'enfer. Où était donc Dieu alors ?”* Askatu zituzten amerikanoek apirilaren 29an eta leher eginak, itzuli ziren Belokerat eta emeki emeki, preso ziren bertze 10 fraileak ere. Ekainaren 8an, lorez apaindua izan zen komentu aitzina eta Aita abadea agertzearekin, oren erdi osoa ezkilak ari izan ziren jo eta jo. Berantago, de Chevigné barne-ministroak medailatu zituen Aita abadea eta Fraidetxea.

Aita Jean-Gabriel Hondek berriz hartu zuen bere kargua baina hain zen ahuldua nun utzi behar izan zuen abadegoa eta aita Jean-Pierre Inda zen abade bilakatu. Jakin behar da, Jean Pierre Indak, bortz urte preso izanik Stalag E delakoan, alemaniar mintzaira ikasi zuela eta baliatu zitzaion gero teologiaren barnatzeko.

1946tik goiti, Jerusalemeneko obra laguntza behar gorrian zagon. Lekuan berean, gauzak kanbiatzen ari ziren ; Israelgo erresuma sortu 1948ko maiatzaren 14an eta segidan, lehen gerla abiatu arabiarren eta israeldarren artean. Lanjer haundian ziren seminarioa, bai eta Abu-Gosheko fraidetxea. Undarrean, 1950ean, fraileek utzi zuten hango obra eta itzuli ziren Belokerat. 14 fraile ziren hilerrian utziak izan. 1964an Jerusalemeko seminarioa bilakatu zen Maison d'Abraham, Sokorri Katolikoaren bilkaturik haren jabe, eta Abu Gosheko etxean, 1973an, Bec-Hellouin-eko fraileek segida hartu zuten.

Urte heietan, Vatikanoko bigarren Kontzilioak manatu zuen gauza hau: fraileek behar zutela fraidetxeetan beren bokazione partikularra joanarazi, eta ez kanpoetan, elizako misionek izanik ere. Aita Jean-Pierre Inda, ideia hortakoa zen ere, baina errespetatu zituen misionest bokazionea zuten fraileak. Eta huna nola Aita Abadeak aurkitu zuen Mgr Gantin, Cotonouko artxapezpikua, eta jin zen Belokerat anaidiari mintzatzerat. Hara nola 1962ko azaroaren 2an fondazio berri bat egin zuten Dahomey erresuman (geroztik Bénin izendatua dena). Aita Adrien Gachiteguy aldudarra harat joan 1963ko apirilaren 24an, lehen superiorra izan zen Aita Dominique Bellegarde, Donamartirikoa, eta Zagnanadoko Fraidetxea lehen aldikotz ideki zuten 1965eko agorrilean. Aita Jean-Marie Burocoa izan zen Bouaken (Boli Kosta, Côte d'Ivoire), fraile eta seroren arteko biltzar handi batean, erran baitzuen : « *Le but principal des fondations monastiques en Afrique est de permettre aux âmes africaines qui s'y sentent attirées par l'Esprit, de réaliser cet idéal contemplatif dans un état de vie consacré par l'Eglise et d'achever ainsi son implantation dans leur pays d'origine.* »

Kontzilioaren ondotik, kanbiamenduak izan ziren fraidetxe guzietan, eta Beloken ere : fraile apez eta fraile laikoen artean ziren berexguneak desegin ziren; liturgia latinetik lekuko mintzairarat itzulia izan zen; gregoriano kantua bertze kantuekin parekatu zen; erakasgaia manera berrian egin zen; eta abar...

1964 eta 1970 artean, eliza berria sortu zen eta buruilaren lehenean kontsekratzioa izan zen. Hortarako, kanbiamendu gaitzak izan ziren fraidetxean. Liburutegi berria eliza zaharrean ezarri, baina ez zen errega izan fraile guzien baia ukaitea. Zonbeit ez ziren akort. Baina emeki emeki, denek onartu zuten eliza berri hori. Baina eliza ainitz gostatzen zen eta horren obren pagatzeko, Pauen zituzten ontasun batzuk saldu zituzten. Urte horietan, Aita Philippe Mathieu hazpandarra, diruzain haundia izan zen.

Liturgiaz

Belokek bide berria erakutsi zuen liturgiarendako. Hori aitzin, jadanik 1947an fraideak lan handi batean hasiak ziren euskal liturgiari buruz. Aita Gabriel Lerchundik (1908-1995), agertaratu zituen « Kantikak », Euskal Herriko parropietan bilduak. Berritu zituen, hoberenak

hautatuz, Aita Iratzederrek egin kantika berriak ezarriz. 1952an, Belokek agertaratu zituen liturgiako liburuak : « Gau Saindua » Pazkoko liturgia, 1953an « Jainko Jaun zerukoa », 1954an « Pasionea », eta « Mortutik oihu », 1956an « Eguberri », 1961ean Narbaitz kalonjeak agertarazi zuen « Elizako-liburua ». Kontzilio denboran, 1964ko martxoaren 7an, apezpikuak bildu zituen Euskal Herriko apezak Baionako seminario haundian, eta deliberatu zuten, liturgia guziaz euskararat itzuli behar zela. Urte berean, jali izan zen « Salmoak » liburuxka, testu eta musika, Aita Xabierren eta Aita Lerchundiren obra. Bertzalde, Aita Marcel Etchehandy eiheralartarra hasi zen Biblia guziaren itzultzen lapurtar-baxenabartarrerat. Biziki lan haundi hori 2007an publikatua izan zen.

Lehen bezperak kantatuak izan ziren Mugerren 1947an. Euskal mezak 1965ean ziren publikatuak izan. 1966an, hiru korala bildu ziren Donibane Lohitzunen (Begiraleak, Oldarra, Belokeko fraideak) Jean Urteagaren “Messe des Corsaires” delakoa kantatzeko. Handik landa, korala ainitz sortu ziren parropietan.

1972an, Aita Xabier Diharce (Iratzeder), donibandarra, abade hautatu zuten fraileek. Pauko san Leon etxea bilakatu zen xahar etxe bat. Eta 1975a Belokeko fraidetxearen ehungarren urtea izan zen. Dudan ziren : batzuek espanturik ez zela egin behar, bertzeek deusik egitea ere ez zitakeela ongi. Zerbeit egin behar zen, Jainkoari eta Herriari eskerrak emateko. Izan zen Diozesako eguna nola Mgr Vincent Baionako apezpikuak ohore haundia eman zuen orduan Belokeri. Izan ziren ere Zeruleen eguna, Erromako aita Abadearekin, Euskaldunen eguna, hamabortz ehun gizon eta emazte haur andana batekin, Roger Etchegaray, orduan Marseillako artxapezpikua denen buru. Berdin ere bastidarren eta ahurtiarren egunak.

HIRUGARREN 50 URTEAK : 1975 – 2025

Azken 50 urte horiek, hobeki ezagutuak dira. Lehenik, fraileak ez baitziren gehiago misionest gisa parropietan ibiltzen, ostalaritza haunditua izan zen. Asko jende, gazte, apez, haur edo adinetako, jiten ziren nonbre haundian, egun batentzat edo zonbeit egunetako erretreta batzu egitera. Eliza berria betetzen zen igandetan eta bereziki bestaburuetan. Ainitzek hola Belokeko anaidia hobeki ezagutu zuten. Eta gustu hartu otoitzean. Bestalde, « Oblats séculiers » multxo bat abiatu zen anaidiaren inguruan. Izan ziren konferentziak, liburu saltzeko sala, jendeer ongi etorria egiten zuten fraileek. Egun batzuetan, bereziki uda denboran, erleak bezala jendeak fraidetxean ibiltzen ziren.

Erran behar da, gasna-lanen irabaziak hobetu zuela etxea, obra berriak egin ziren, modernizatuz, fraileek laborantxako ainitz lan egiten zituzten (hori esplikatuko dut bigarren partean).

1987an, Iratzederrek utzirik bere kargua, Aita Jacques Damestoy donibandarra hautatu zuten fraileek abade izaiteko eta jarri zen bere karguan uztailaren 11n.

Gero, oren gaixtoak izan ziren fraidetxearentzat. Jandarma tropa batek fraidetxea miatu zuen urte hartan berean, eta hortaz ainitzek pena haundia ukan zuten. Aldiz, Baionako apezpiku berria, Mgr Pierre Moleres, fraileeri indar emaiten fraidetxean usu ibiltzen zen.

Berantxago, 1951n Aita Xabierrek sortarazi zuen Ezkila enpresa, hetsia izan zen. Marcironeko frailetxea hetsi zen 1993an, Zagnanado hetsi 1989an, ardi tropa laborari batzuen arrandan pasatu, borda bat saldu, eta undarrean, 2020an, Habitat et Humanisme fundazioari etxe guzia saldu.

Bainan, berri onak ere baditugu fraidetxe huntan. Fraileak joan dira seroretxerat, han leku berrian plantatu dira. Aita Jean-François d'Aleman, baionesa, frailek heien buru, Prior, hautatu dute. Leku berean segitzen dute jendek liturgia, laguntza ainitz eta edozoin motakoak emaiten. Anaidiak beti 50bat elkarte laguntzen ditu diruz. Beriziki, Afrikan, fraidetxe berri bat sortu zen Zagnanadoren ondotik, bertze herri batean, Hêkanmé izenekoa. 15 bat fraile dira han mementoko. Heiek ere laguntzen ditugu. Ixtoriaren erresalbuek geroa prestatzen dute.

San Benoatek erraten zuen bezala, ez so egin gibelerat, pasatua pasatu. Ez so egin geroari, geroa ez da gurea. Bainan so egin egun bakotxean, egunari : egun bakotxean dauku gure Jainkoak keinu egiten.